2. GAIA: ZATIGARRITASUNA

1. Eskolako liburutegia egunero ddago zabalik, baita jaiegunetan ere. Ane, 4 egunetik behin joaten da, eta Jon berriz, 6 egunetik behin. Gaur biak elkartu dira, zenbat egun barru elkartuko dira berriro?

2. Eiderrek eta Aitorrek 30 puxtarri zuri, 27 urdin eta 42 gorri dituzte. Puxtarriein ahalik eta ilara gehien osatu nahi dituzte. Ilarek berdinak izan behar dituzte. Zenbat ilara osatuko dituzte?

3. Mirenek 20m luze eta 8m zabal den oihal bat du, eta ahalik eta pieza karratu handienetan moztu du, soberan zatirik gelditu gabe. Zer neurri izango dute zatien aldeek?

4. Semaforo batek 45 segundoro kolorea aldatu egiten du. Handik gertu dagoen beste semaforo batek minutua behar du kolorez aldatzeko. Une jakin batean, bi semaforoak batean aldatzen dute kolorea. Zenbat denbora pasa behar du berriro bietan kolorea une berean aldatzeko?